

DIRU SARRERAK

Gure proiektua aurrera eramateko, kostuei aurre egiteko **mailegu bat behar dugu**, hasierako inbertsioa oso handia baita. Lokal bat alokatzea erabaki genuen, ekonomikoki errentagarriagoa zelako.

Lehenik eta behin, bankuari **40.000 euroko mailegua** eskatuko diogu negozioa martxan jartzeko, hasierako produktuak gure dendan erosteko, eta jardungo dugun lokalaren alokairua eta fidantza ordaintzeko, baita beharrezko konponketak eta egokitzapenak lokalean egiteko.



Gainera, bakoitzak **gure aurrezkietatik 2.000 euro hartuko ditugu** beste gastu eta ustekabeko gastuei aurre egiteko. Laburbilduz, hasierako inbertsioagatik ordaindu **behar dugun diru guztia 50.000 eurokoa da**. Hasieran, negozioan egiten dugun lehen inbertsioa banku-mailegu bat izango da, baina negozioa martxan jarritakoan, salmentatik aterako dira diru-sarrerak.

Merkatu-ikerketen eta hainbat erosle potentzialen iritzien ondoren (gure arropa pertsona gazteentzat zuzenduta dago baina nahiz eta gazteentzat zuzenduta egon ez du adinik), ondorioztatu dugu adin-talde bakoitzeko bezeroak prezio desberdinak ordaintzeko prest daudela.



Gazte gehienek preziorik ekonomikoena aukeratu dute, hau da, ahalik eta preziorik baxuena. Helduak, berriz, prezio handiagoa ordaintzeko prest daude, finantza-gaitasun handiagoa dutelako. Hori dela eta, gure produktu sorta bezero potentzial ezberdinen beharrak asetzen dituzten produktuez osatuta egongo da, prezio tarte ezberdinekin. Gure ustez, lehenengo hiruhilabetean 10.000€ inguru fakturatuko ditugula uste dugu.

Hortik aurrera gure enpresan gorakada bat aurreikusita dugu non hurrengo 6 hilabetetan 100.000€ inguru fakturatuko ditugu.